

noaua

**Matrikulazio garaia da
Zumarte Musika Eskolan**

**Olatz Arregi Irureta:
“Sagardo Eguna
sakratua da”**

**Larunbat honetan,
“Jainko basatia”
antzezana Sutegin**



**Erraustegia
eraikitzekeo lanak, martxan**

ARRAUN-JARDUERAK ORIA IBAIAN

Begiraleekin antolatutako jarduerak.

Ontzien alokairua urte osoan zehar

Usurbilgo Txokoalde auzotik Orioraino, 2,5 orduko jaitsiera kaiakera.

657 794 677

www.begi-bistan.com · info@begi-bistan.com

FUNERARIA GONZALEZ EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

AURTEN HILERRI ZAHARRAREN ITXIERA:

- GORPUZKI ETA HILOTZ-HONDARRAK ZUEN KABUZ KUDEATU NAHI BADITUZUE GUZTIAZ ARDURATZEN GARA:
- HILERRI ZAHARRETIK ATERA ETA ERRAUSTEAZ
- HILERRI ZAHARRETIK BERRIRA ERAMATEAZ

ESKAERA EGITEKO AZKEN EGUNA, EKAINAK 16!

(Izapide guztiak egiten ditugu: Osasun Saileko baimenak, Udala, Erregistro Zibila, osasun-garraioa erraustu-labera edo beste hilerrri batera...)

OSASUN SAILAK BAIMENDUTAKO ENPRESA GARA (ERREG ZB: F18)

943 36 21 63 (24H)

AURREKONTU ETA INFORMAZIOA KONPROMISORIK GABE

- BEILATOKI GUZTIAK · ERRAUSKETAK
- EDOZEIN ASEGURU IZANDA (OCASO, SANTALUCIA...) HERIOTZA GERTATZEN BADA, DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H. GUZTIAZ ARDURATZEN GARA

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

2 etxebizitza gelditzen dira!

AZKEN 2 ETXEBIZITZAK!

12 ETXEBIZITZA INGURUNE PAREGABEAN Agerreazpi_n

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia

E: contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com

Albiste iruditzen

Udarregi ikastolakoak udaletxean, “Eskola Agenda 21” egitasmoaren berri ematen

Maiatzaren 10ean, Osoko Bilkura berezia egin zen Usurbilgo udaletxean. Udarregi ikastolako ikasleak “Eskola Agenda 21” proiektuaren inguruko proposamenak lantzen aritu dira ikasturte honetan. Egitasmo horien berri ematera hurbildu ziren, hain zuzen, udaletxeko pleno aretora. Alkate eta zinegotzien aurrean, “ikastolarako irisgarritasuna hobetu eta garraio jasangarriaren aldeko ideiak mahaigaineratu zituzten”.

Herri lasai eta iraunkor bat lortzeko eta bizi kalitatea hobetzeko, “guztion parte hartzea beharrezkoa da; horregatik, betetzen saiatuko garen hainbat konpromiso hartu ditugu, eskola barnean eta kanpoan betetzeko”. Neurri hauek jaso dituzte “Eskola Agenda 21” txostenean:

- Ikastolatik gertu bizi garenok oinez



Maiatzaren 10ean, Udarregi Ikastolako ikasleak pleno aretoan izan ziren. Argazkia: usurbil.eus

joaten saiatzea. Eta biziokiaren arabera, bizikletaz edo autobusez.

- Beste ikasle guztiak animatu ikastolara oinez etortzeko.

- Eta bide batez, gurasoei esan ez eramateko kotxez gertu dauden lekuetara.

- Zebrabideak erabili, zebrabideetatik pasa.

Laburrean

Sagardo Eguneko jai gunea, autorik gabekoa

Hainbat kale autoentzako itxita izango dira igande honetan. Ohi bezala, autobusek geltoki bakarra izango dute, San Inazioko errotondakoa. Ez dira Kale Nagusitik sartuko.

“Motxilaren Umea”, youtuben ikusgai

Bere ama espetxean daukan adingabeko neska baten istorioa kontatzen du film honek. Kurkuluxetan Kultur Elkarteak ekoitzi duen lan hau ikustera animatzen gaitu Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak.

Aginagako Atarialde elkarteko batzarra

Maiatzaren 27an bazkideen urteko batzar nagusia Aginagako Atarialde Elkartearen eguerdiko 12:00etan. Ondoren bazkaria. Soziedadean bertan jarrita dauden zerrendetan izen ematea eskatzen dute.

noqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noqua.eus // www.noqua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noqua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noqua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Jon Galbete, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herreria!



Maialen Unanue

Hasi dira

Zein denbora gutxian pasa daitekeen pozetik haserrera. Ofizialki eman diete hasiera erraustegiaren obrei, gizartean sortzen duen zatiketa batere kontuan izan gabe. Hondakinak erretzeari argi berdea piztuta, “debate amaigabetik” atera omen da Gipuzkoa, magia bailitzan. Boterea edukitzearen abantailak. Markel Olanoren ustez, gainera, 2015ean hauteskundeak irabazi izanak zilegitasun osoa ematen omen die erraustegia egiteko. Ahaztu EAJ eta ahaztu erraustegia: hauteskundeak irabazteak esan nahi du bozka eman dion alderdiak egiten dituen gauza guztiarekin ados zaudela? Guzti-guztiarekin? Benetan inork sinestu dezake hori?

Eta gatozen orain berriz

ere erraustegira. Agerikoa da herritar guztiak ez daudela ados erraustegiarekin. Azken urtean egin diren mobilizazio jendetsuek erakusten dute milaka direla beste alternatiba batzuk bilatzearen aldekoak. Ze aurpegi geratu behar zaie bizitza osoan birziklatu duten herritar horiei, erraustegia etxe ondoan jartzen dietenean? Ze aurpegirekin argudiatu daiteke Gipuzkoak erraustegia behar duela, hura elikatzeke zaborra kanpotik ekarri behar bada? Nola eman ditzakete erraustegiaren aurrekontuen datuak lotsagorritu gabe batere? Konturatzen ote gara ze negozio puska egin duten Ekondakin enpresa taldekoek, zer eta 35 urterako? Zer mezu ari dira bidaltzen agintariak erraustegia beharrezkoa dela

errepikatzen dutenean? Hain ekologista, hain berde, hain garbi omen garaioan, ez ote da esaten ari birziklatu gabe ere, total, berdin izango dela? Ez ote da esaten ari ez birziklatzeko eskubide osoa duela herritarrek?

Herritar batzuei min ematen die kalean birziklatzeko aukerarik ez dutela ikusteak, eta beste batzuek batere kontzientzia kargarik gabe botatzen dituzte jogur potxoak eta letxuga soberakinak edukiontzi berera. Batzuk kezkatuta daude etxe ondo-ondoan izango dutelako osasunarentzat hain kaltegarria izango den azpiegitura bat; eta, beste batzuek, berriz, distantziatik entzuten dute “zaborrekin bueltan sortutako zalaparta” guztia. Eta, beste batzuk, gutxi batzuk,

bitartean, eskuak igurzten dituzte, egin eta, batez ere, blindatu duten negozio puska itxi berritan.

Hamalau urte pasatu dira erraustegiaren kontuarekin hasi zirenetik, eta ez dute lortu gizartean sortu zuen zatiketa gainditzea. Eta aurka ez dira soilik ekologistak bakarrik atera: Odon Elorza bera proiektuaren aurka agertu zen. Gipuzkoan nagusi diren lau alderdietatik bi aurka egotea nahiko esanguratsua bada zatiketa hori usaintzeko. “Karrera” politikoa poltsiko propioa zein lagunena puzteko soilik erabili nahi duten horiek ez dira beraien interesen ordezkari besterik. Eta, gainera, arazorik gabe egingo dute lo gauetan. Bejondeizuela.

Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | **Maialen Unanue** | Garazi Lizaso Manterola | Luis Aranalde | Idoia Torregerai | Luken Arkarazo

Ika-mika

EH Bilduren herri batzarra

EH Bilduk aro berrira eramango duen prozesu eratzailea abiatu du. EH Bildu irekiago, parte-hartzaileago eta demokratikoagoa izateko konpromisoa hartu dute osatzen duten alderdiak. Bertako partaideok, alderdiez haratagoko subjektu politiko propioa osatzeko

helburua adierazi dugu.

Prozesu eratzailea, ekainaren 17an egingo den Kongresuarekin amaituko da. Aurretik, Kongresura eramango diren dokumentuak eztabaidatzeko aukera izango da herri ezberdinetan egingo diren foroetan. Usurbilen ere horretarako


aukera izango da maiatzaren 23an Potxoenean 19:00etan egingo den Herri Batzarrean.

Era horretara, EH Bildu nolakoa izango den erabakitzeke aukera izango dugu EH Bildurekin bat egiten dugun herritar guztiok. Hala, Zuzendaritzako izenak proposatu eta bozkatu

ahal izango ditugu eta eztabaidarako dokumentuari ekarpenak egin ahal izango dizkiogu. EH Bilduren prozesu eratzailean parte hartzeko, kongresua.ehbildu.eus helbidean ize-na eman beharko da.

Usurbilgo EH Bildu

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Herritzarturen egoitza atariko pankarta erre dute

Erasoa larunbat goizaldeko 02:00ak aldera jazo zen, maiatzaren 7ko herri galdeketa antolatu zuen Herritzartu Elkarteak Etxebeste kalean duen egoitza atarian. Argitzeke dauden arrazoiengatik, sua hartu zuen Lizardi liburu denda eta Marije arropa denden artean dagoen lokalaren atarian esekita zegoen pankartak. Pankarta honek maiatzaren 7ko herri galdeketa emaitzak islatzen zituen.

Kontsulta egunaren amaieran, Mikel Laboa plazan Herritzartu Elkarteak eseki zuena da hain zuzen. Geroztik eguntan lokalaren atarian egon da zintzilikatua. Su eman dioten arte. Zorionez, suteak Herritzarturen lokaleko eta ondoko erakusleihoak belztu zituen baina kalte material gehiagorik ez zuen eragin. Sutearen berri aseguruari eman eta salaketa aurkeztekoak ziren aste hasieran.

Bidean aurrerantz egingo dute Gertaturikoa publikoki ere sa-



Pankarta honek maiatzaren 7ko herri galdeketa emaitzak islatzen zituen.

HERRITZARTU

“Hilabete luze hauetan dinamika eta elkarlan handia eratu dugu Usurbilen, aniztasuna eta gardentasuna bermatuz”

latu dute Herritzartuk eta Gure Esku Dagok kaleratu duten adierazpenean, sutea izan eta berehala itzaltze lanetan aritutako

herritarrak eskertzearekin batera, “sute horrek eragin zezakeen arriskua handia baitzen”.

Ekintza larria

Erabakitze eskubidearen aldeko herri mugimenduaren esanetan, “ez dakigu nor edo nortzuk izan diren ezta ze asmorekin egin duten. Ezin dugu ziurtatu, ondorioz, zein izan den ekintza honen iturburua ezta intzizio politikorik izan den ere ez. Edozein kasu, galdeketa

ka egiteko izan bada, oso larria dela azpimarratu nahi dugu. Azken batean, eraso horrek demokraziaren aurka egiten baitu zuzen-zuzenean, herritarron hitza eta erabakiaren aurka, hain zuzen ere”.

Gogorarazten dutenez, maiatzaren 7an “1.848 usurbildarrek hartu genuen hitza, %38,36k. Erabakitze eskubidea nahi dugula eta praktikara eraman nahi dugula adierazi genuen ozenki. Hori ezin da egun batetik bestera isilarazi. Eta gutxiago modu hauen bidez”.

Orain arteko bidean aurrerantz jarraituko dutela diote Herritzartu elkarteok. “Gu orain arteko bidean urratsak egiten jarraituko dugu. Hilabete luze hauetan dinamika eta elkarlan handia eratu dugu Usurbilen, aniztasuna eta gardentasuna bermatuz. Etorkizunari begira zimendu garrantzitsuak erroto ditugulakoan gaude. Hori baita gure iparorratz bakarra, gure izenak eta izanak dioen bezalaxe: herritarrek hitza hartzea”.

Ika-mika

Indartsuak beti arrazoi

Berdin gertatzen ari zaigu mugaren bi aldetan. Han laborari batzuk ez daude prest beraien ogibidea kolokan jarriko duen erabakia onartzeko. Beraien lan jardunean oinarritzak diren abereak (ahateak eta oi-loak) akabatzeke agindu baitu Parisko Gobernuak. Behe Nafarroan eta Zuberoan dauden 3 etxaldetako laborarietako plan to egin die Parisko erabakiari. Frantziako Gobernuak, lehenik mehatxuak eta ondoren

indar polizialak bidali ditu Iparraldeko laborarien aurka ke pote eta guzti. Bertako herritarrak aurrean jarri zaizkie jendarme horiei eta azken hauek atzera egin behar izan dute. Zorionez iparralde horretan laborariak oraindik zer-bait badira, gehiengo duen ELB sindikatuak badu herritarren gehiengo mobilizatzeko ahalmena. Zubietan ere mehatxuetatik ekintzetara pasatu dira jada. Erraustegiaren lanak

hasi dira jada. Ez ditugu momentu goxoak pasako baina behin eta berriz esaten diegu gure agintariei errausketa ez dela bidea. Hauek Parisko Gobernuaren antzera indarraren erabilpena bakarrik dute buruan. Zer esan Usurbilgo EAJri, ederki etorri zaizue Gure Esku Dago-ren kanpaina zurikeriatan ibiltzeko. Herriaren hitza aipatzen duzue, herriaren nahia aipatzen duzue baina gogorazazi behar zai-

zue zuen udaleko bozerama-leak nola mespretxatu zuen Usurbilgo herritarren %43-ak bozkatu zuena. Azkenekoz idatzi nizuen esaldi berberarekin bukatuko dut, egin ezazue herriaren alde! Egin ezazue etorkizunaren alde! Eta utzi alde batera Mozal Legea eta errepresioa.

Lontxo Zubiria

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAik ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: maiatzak 26. Idatzia ekartzeko azken eguna: maiatzak 22.

Matrikulazio garaia da Zumarten

2017-2018 ikasturterako matrikulazio garaia astelehenean zabalduko da. Zumarte Musika Eskolan bertan eman behar da izena. Oinarrizko informazioa jaso dugu albiste honetan, baina xehetasun gehiago (hobariak eta beste) musika eskolan bertan jasoko dituzue.

Egunak:

■ Maiatzak 22 - 26. Informazio gehiago: 943 371 594
www.zumarte.org

Ordutegia:

■ Goizez (asteartea, osteguna eta ostirala): 10:30etik 12:30era. Arratsalde (egunero): 16:30etik 19:30era.

Matrikula nola osatu:

■ Zumarten nahi edo behar duzuen informazioa jaso.
■ Ordainketa egin, Kutxabank-eko ondoko kontu korronte zenbakian: ES15 2095 5069 08 1062820021 kontu zenbakian ordainketa egin ikaslearen izena erreferentzia bezala ipiniaz eta ordainagiria jaso. Kutxabank-en ingresoak egiteko ordutegia: 8:30-10:30 bitarte.

Prezioak:

■ Musika Txokoa (4-5-6-7 urte): 125 euro.
■ Musika Txokoa + instrumen-



Hilaren 22an hasi eta 26an amaituko da Zumarte Musika Eskolan matrikulatzeko epea.

tua: 250 euro.

■ Musika Mintzaira: 125 euro.
■ Musika Mintzaira + instrumentua + abesbatza eta/edo talde: 250 euro.
■ Instrumentua eta taldea: 125 euro (Panderoa: 70 euro).
■ Abesbatza edo Talde Instrumentala bakarrik: 50 euro.

Ordaindu ondoren:

■ Ordainagiria, zuen kontu korronteko zenbakia (20 digituarekin) eta argazki bat (ikasle berriak bakarrik) Zumarten entregatu eta inpresioak sinatu. Horrez gain, instrumentuko ikasleak hilero 28 euroko kuota ordaindu beharko dute.

Oharra:

Musika txokoa, musika mintzaira eta instrumentuko ikasle berrien kasuan, eskaintako plaza kopuru baino eskaera gehiago badago, matrikulazioa bukatu eta hurrengo ostegunean arratsaldeko 19:00etan zozketa egingo da. "Zozketan sartu ahal izateko matrikula ordainketa egin eta agiria musika eskolan entregatu beharko da ikaslearen datuekin batera. Zozketaren ondoren itxaron zerrenda egingo da eta bajarik egon ezker itxaron zerrendako ikasleak sartuko lirarteke. Zozketaren ondorioz plaza gabe geratzen diren ikasleei

bakarrik itzuliko zaie matrikula", Zumartek aditzera eman duenez.

Zumartekoak, Olatu Talkan

■ Maiatzaren 19an ostirala, Zumarte Abesbatzakoaren saioa. 20:00etan Donostiako Udaltxeko terrazan.
■ Maiatzaren 21ean igandea, Zumarte Musika Eskolako akordeoilariak Donostiako Portuan 17:00etan ospatuko den topaketan. Asier Iruretagoiena, Intza Apezetxea, Gorka Arroyo eta Maddi Zuloagak hartuko dute parte.

Ekainaren 3an, haur zein gurasoentzako musika tailerra

Lalala soinu gela hurrei eta beren familiei zuzenduriko musika tailerra da. "Soinuaren bitartez txikien gaitasun musikal, psikomotorre, kognitibo eta sozioafektiboak garatuko dira, haurra eta bere familiaren arteko lotura indartuz", Zumartetik aditzera eman digutenaz.

0-3 adinekoentzat

■ 0-3 urteko haurrentzat eta beren familientzat.
■ Non: Zumarte Musika Eskolan.
■ Noiz: Ekainak 3, larunbata.
■ Prezioa: 15 euro, familiako.
■ Izen ematea: Zumarte Musika Eskolan, (maiatzak 22-26 bitarte).



Martxoan antzeko musika tailerra egin zuten Zumarten.

Lorazain ofizial lanpostua betetzeko deialdia

Usurbilgo Udalekoa den lanpostua, lehiaketa-oposizio sistema bidez beteko da. Honatx deialdi honen xehetasun nagusiak:

- Plaza kopurua: 1.
- Eginkizunak: “Obra eta zerbitzuetako enkargatuarekin elkarlanean udaleko berdegune eta lorategien diseinua eta mantentzearen plangintza eta programazioaz arduratzea. Lorezaintzan sortzen diren lanak kudeatu eta burutu. Hilerrietako mantentze eta lorezaintzako lanez arduratu, bertako langileen lana gainbegiratu. Bere ardurapean esleitzen zaizkion langileen lanaren jarraipena eta kontrola burutu...”.
- Eskabideak: udal errejistroan, Estatuko Aldizkari Ofi-



“Udaleko berdegune eta lorategien diseinua eta mantentzearen plangintza eta programazioaz arduratzea”, zeregin hori izango du.

zian argitaratu eta bihar-munetik zenbatzen hasita, 20 egun naturaleko epean. Eskabide eredu ofiziala udal errejistroan edo usurbil.eus atarian

eskuragarri.

- Informazio gehiago: maiatzaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala / usurbil.eus / 943 371 951.

Mozal Legearen aurkako ekintzaile bat harrapatu zuen trenak

Ezbeharra Usurbilgo tren geltokian gertatu zen, larunbat arratsaldeko 14:00ak pasatxoan. Donostiako Eleak-Libre Mugimenduko talde bat, geltokira heldu zen trenaren alde batean, Mozal Legearen aurkako “EAJ, Mozal Legeari ez” pintaketa egiten ari zela. Talde kideetako bat trenaren aurrean jarri zen puxika laranja batekin trena geldirik mantentzeko eskatuz.

Makinistak ez zuen ekintzailea ikusi

Makinistak antza ez zuen ikusi ekintzailea, trena martxan jarri eta harrapatu zuen. Zaurituriko ekintzailea anbulantzian eraman zuten Donostia Ospitalera, larri. Haustura dezente ditu. Igandean, gazteari elkarretasuna adierazteko elkarretaratzea egin zuten Donostiako Bulebarrean.



Ekintzailea anbulantzian eraman zuten Donostia Ospitalera, larri.

Usurbilgo jaiei loturiko lehiaketetan parte hartzeko azken egunak

Herriko festak hasteko eta hilabete erdi falta den honetan, prestaketa lanak aurreratuak ditu Jai Batzordeak. Egitaraua lotu antzera dutela berri eman diote NOAUA!ri.

Jai Batzordea, hilaren 25ean

Oraindik halere, prestaketa lanak borobiltzeko berriz biltzekoa da Jai Batzordea; oraingoan maiatzaren 25ean 18:00etan Potxoenean. Eragile zein herritarrak daude deituak hitzordu honetara.

Usurbilgo jaiei begira, abian diren txupinazoa jaurti eta egitaraua diseinatzeko lehiaketetara ekarpenak egiteko epea maiatzaren 22an itxiko dute:

Txupinazorako hautagaiak

Txupinazorako hautagaiak proposatzeko aukera kultura@usurbil.eus helbidean edo Oiaro Kiroldegiko, Sutegi udal liburutegiko eta Potxoeneko kaxetan.

Egitarau diseinu lehiaketa

Lana neurri librekoa, irakurterraza, originala izan behar du. Nahi adina lan aurkez daitezke banaka edo taldean, euskarri digital eta paperean. Aurkeztutako lanetan hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatu behar da. Saria: 500 euro. Argibide gehiago eta egitaraua diseinatzeko testua eskuratzeko bideak: 943 371 999 kultura@usurbil.eus

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAQUISIA 10- atzekoaldea
943 372 795

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

Zuen publizitatea hemen
☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Greba erabatekoa Zubietako eta Aginagako Eskoletan

Isiltasuna erabatekoa zen eta ikasgelak hutsik ziren maiatzaren 16an, Zubietako eta Aginagako Eskoletan. LAB, ELA, STEILAS eta CCOO sindikatuek hezkuntza publikoan deitutako greba orokorrak erabateko jarraipena izan zuten ikastetxeotan.



Zubietan eta Aginagan ez zen eskolarik izan maiatzaren 16an.



Larunbat honetarako, maiatzak 20, manifestazioak deitu dituzte hiriburuetan 12:00etan (Donostiakoa, Alderdi Ederreko Hernani kaletik). Eta hurrengo astearterako, maiatzaren 23rako berriz ere greba

eguna deitu dute. Hezkuntza publikoaren egoera larritzat jotzen dute sindikatuek eta hori iraultzeko, “oinarri-oinarritzako neurriak eskatzen ditugu” mobilizazio hauekin. Baliabide nahikoak izatea, lan-

gileen lan-baldintzak nabarmen hobetzea, edota azken urteotako murrizketen ondorioei aurre egiteko neurri zehatzak hartzea exijitzen diote Eusko Jaurlaritzari eta Haurreskolak Partzuergoari.

Asteartean abiatuko da Zubietako Udaberri Festa



Zubietako Eskolako guraso elkarteak antolatu du kultur aste modukoa.

Zubietako Eskolako guraso elkarteak antolatuta, datorrena ospakizun aste izango dute Zubietan:

Maiatzak 23, asteartea

- 16:30 Eskolako haurren marrazki erakusketa.
- 17:00 Ipuin kontaketa.
- 18:00 Globo gerra eta apar festa.

Maiatzak 24, asteazkena

- 17:00 Eskulanak: txapak, gatza potoak, kareta, aurpegiak pintatzea, kafe kapsulekin eskulanak (koilareak, brotzeak, diademak), papiroflexia...

- 19:00 Buruhandiak.

Maiatzak 25, osteguna

- 16:30 Merendola.
- 17:00 Puzgarriak eta trebetasun frogak.

Maiatzak 26, ostirala

- 17:30 Zubietako antzerki eta dantza taldeko ikuskizunak.
- 18:00 Buruhandiak eta masakuri zozketa.
- 19:30 Afari-merienda, eta ondoren disko festa eta euskal dantzak.

Antolatzailea: Zubietako eskola txikiko guraso elkarteak.

“Biziberritu” kanpaina, azken txanpan

Biziberritu ekimenaren helburuak hauek dira: “ikas-tolaren funtzionamendua hobetzea, erabakietan parte hartzeko egun dauden bideak osatuz eta hobetuz”, idatzi bidez ohartarazi digutenez. Aurten abiatu da eta bi dira landu dituzten gaiak: gurasoek ordaintzen duten hileroko kuotaren kopurua erabaki eta urteroko soberakinekin zer egin erabaki.

Sinadura bilketa,

maiatzaren 25a baino lehen

Prozesu osoari buruzko informazioa, sinatu ahal izateko kontaktua, eta egindako proposamenei buruzko informazio gehiago Interneten: biziberritu.wixsite.com/hasiera biziberritu@gmail.com

“Hezkuntza emozionala” hitzaldia, maiatzaren 31n

Maiatzaren 31n ospatuko da Hitz Ahok antolatu duen solasaldia, 17:00etan Udarregi Ikastolako eraikin gorriko bide gelan. Jon Berastegik bideratuko du saioa.

Ikastola Egunerako laguntza deialdia

Ekainaren 10ean Udarregi ospatuko duen Ikastola Egunerako herri bazkarian, pres-taketa, zerbitzatzeko, jasotze edo garbiketa lanetarako laguntza behar dute. Izen emateko: Udarregi Ikastolako idazkaritzan, 943 361 216 telefono zenbakian edota usurbil@ikastola.eus e-postan.

Batzar Orokorra

Artezkaritza Kontseiluak Udarregi Ikastola, Irakaskuntza Kooperatiba Elkartearen ohiko batzar orokorra deitu du maiatzaren 25erako 18:00etan (bigarren deialdia 18:30ean) Sutegin. Besteak beste, Artezkaritza Kontseilua eta Zaintza Batzordea berrituko dira edota Antolaketa Orokorreko egitasmoa azalduko da.

Orbeldi, “Dantza” filmeko grabaketan

Telmo Esnal lantzen ari den “Dantza” filmeko eszenak grabatzen dabiltza Euskal Herriko txoko ezberdinetako dantzariekin. Asteburuan Leitzan egin zituzten grabaketan Usurbilgo Orbeldi eta Añorgako Arkaitz dantza taldeko hainbat kideek parte hartu zuten.



Leitzan egin zuten grabazioa. Argazkia: Orbeldi.

Aisialdiko begirale ikastaroa antolatu du Udalak

Herriko kirol taldeekin elkar-lanean aisialdiko begirale ikastaroa antolatu du Udalak. Izen emateko epea zabalik egongo da maiatzaren 19ra arte, Oiarde Kiroldegian.

Olatz Arregi Irureta, sagardo botatzailea: “Sagardo Eguna sakratua da usurbildarrontzat”

Nork esango zion lehen aldiz Sagardo Egunean botatzaile gisa parte hartu eta botatzaile onenaren txapela irabaziko zuenik. Ezuste handia izan zen iazko Sagardo Egunean bizi izandakoa, Olatz Arregi Irureta usurbildarrontzat. Botatzaile onenaren txapela jantzita amaitu zuen, berak egoki dioen moduan, “usurbildarrontzat sakratua” den eguna. Esperientzia errepikatzen doa aurten. Berarekin bildu da NOAUA!, 36. Sagardo Egunaren bezperatan.



“Botatzaileok, herrikoak izanik, ondokoekin hitz egiten eta elkar laguntzen oso ondo pasatzen dugu”.

NOAUA! Noiztik sagardo botatzaile?

Olatz Arregi Irureta: Behin hasi ginen Aitzagan urarekin botatzen proba moduan. Koadrilan hitz egin genuen iaz, ia aterako ote ginen Sagardo Egunean. Lehenengo aldiz, ilusio handiz proba moduan animatu ginen. Oso ondo pasa genuen.

Ustekabean, oholza gainean sagardoa botatzen eta txapel-dun amaitu zenuen iaz. Nola gertatu zen?

Sagardo Eguneko antolatzaileek bi lagun hautatzen dituzte. Inor jabetu gabe, postuz postu

OLATZ ARREGI IRURETA

“Neskak ere animatu nahi nituzte sagardoa botatzera, giro ederra izaten da. Akaso norbaitek txapela ere eramango du”

behatzen doaz botatzaileak. Hiru lagun hautatu eta frontoiko oholza gainera, sagardoa jendaurrean botatzera igotzeko eskatzen dute. Iaz nahiko ondo moldatu nintzen sagardoa botatzen baina ezustean harripatu ninduten. Konturatzerako

oholtza gainean nintzen. Denak begira eta errespetua ematen du. Bi mutil eta neska bakarra nintzen. Sarituen izenak esaten hasi, eta nirea azkena. Txapela, sagardo kaxa bat eta Idiazabalgo gazta eder askoa irabazi nituen. Oso pozik, senideak ere hunkituta etorri zitzaizkidan.

Egun borobila beraz?

Gero handik ospatzera joan ginen.

Sagardo Eguna, nola bizitzen da zerbitzarien mahaitik?

Antzekoa da eguna. Botatzaileok, herrikoak izanik, on-

dokoekin hitz egiten eta elkar laguntzen oso ondo pasatzen dugu. Giro polita egoten da barruan. Iaz Askatasuna plazan egon ginen. Eurria ari zuen eta aterpean lekua hartu ahal izan genuen.

Aurtengoari begira entrenatzen hasia zara?

Keba. Momentuan joan eta ateratzen den bezala arituko naiz. Hau esan eta gero agian, Sagardo Egunaren bezperatan Aitzagan entrenatzen ikusiko gaituzte.

Taldetxo osatu duzue?

Horretan ari gara. Nik behintzat botatzaile bezala parte hartuko dut. Neska gutxi egoten gara. Neskak ere animatu nahi nituzte sagardoa botatzera, giro ederra izaten da. Akaso norbaitek txapela ere eramango du. Animatu!

Zer egin behar da botatzaile gisa parte hartzeko?

Sagardo Egunean bertan, goizeko lehen orduan agertzea nahikoa da. Postuak prestatzen, sagardoak bere lekuan jartzen lagundu behar da. Eta gero lekua hartu behar izaten da.

Auzolanik gabe, Sagardo Egunik ez

Sagardo Eguna, bere 36. edizioan. Bizirik ikusten duzu?

Olatz Arregi Irureta: Ederki ikusten dut. Oso ondo dago antolatuta gainera. Antolatzaileei eskerrak eman nahi dizkiet, lan asko egiten baitute. Haiengatik izango ez balitz, Sagardo Eguna ospatzerik ez genuke izango.

Sagardoa zerbitzatzeko teknika berezirik baduzu?

Egia esan ez, berez barrutik sortzen zaidan moduan botatzen dut.



Olatzek botatzaile lehiaketa irabazi zuen iaz. “Botatzailearen figura garrantzitsua da, baita sagardoa ondo zerbitzatzea ere”.

Zer moduzkoa da botatzaile eta sagardo edaleen arteko hartuemana?

Ondo, batzuetan begira geratzen

zaizkizu nola botatzen duzun.

Zer plan duzu igandean?

Goizean sagardoa bota, giroan

murgildu, bazkaldu eta festara!

Astelehena jai al duzu?

Goizean behintzat jai egingo dut. Sagardo Eguna aprobetxatu beharra dago, sakratua da usurbildarrontzat.

Zure ustez, sagardo on batek nolakoa behar du izan?

Neure erara badakit zer dudan gustuko eta zer ez. Sagardoaren zaporea nabaritzea gustatzen zait, eta puntu bizi hori izatea. Bizigarri hori ez badu, zerbait falta duela iruditzen zait.

Aizpurua Autobusak, Sagardo Eguneko irekiera ekitaldian:

“Gure motorrik garrantzitsuena bezeroak dira”

Zenbat eta zenbat usur-bildar garraiatu ote dituzte 50 urteotan. Aizpuruarren autobusetara igo ez den herritar gutxi izango da honez gero. Ezaguna dugu lantegia Usurbilen eta hementik kanpo. Hurbilekoak langileak ere, usurbildarrak. Mende erdia igaro dute, haien nortasun zigiluari eusten; bezeroak mimatu eta Usurbilen bizi eta lan eginez, gertuko zerbitzua eskaintzen. Horregatik, 50. urtemuga honetan, poztasun eta ohore handiz jaso dute herri-rik bertatik, Sagardo Egunearen Lagunen eskutik jaso duten gonbita; igande honetako 36. Sagardo Egunari hasiera ematekoa.



Edalontziak jada prest dituzte. Igandean, Aizpurua sendiak emango dio Sagardo Egunari hasiera.

Maiatzaren 21ean frontoiko oholtza gainean ikusiko dugun Aizpurua sendiko bi kiderekin bildu gara: Ana eta Edurne-ekin.

NOAUA! Nola jaso duzue Sagardo Eguneko Lagunen gonbita?

Ana Aizpurua: Hasieran harritu gintuen, orain arte beti herri-gintzan aritu diren bolondresak omendu direlako. Baina oso pozik eta ohore handia da guretzat, Sagardo Eguneko lagun asko mugitu izan baititugu haurrak zirenetik. Beraiek gure historiaren zatitxo bat dira eta haiek ere sentitzen dute Aizpurua Autobusak ere badela haien bizitzako zatitxo bat ere.

Hitza hartzeko aukera izango duzue Sagardo Egunean. Zer

ANA AIZPURUA

“Ilusioz eta pozez biziko dugu irekiera ekitaldia. Omenaldi hori sentitu eta esker onez eta pozez jasotzen dugu”

esan edo zeini eskaini nahi zenukete hasiera ekitaldia?

A. A.: Ilusioz eta pozez biziko dugu. Omenaldi hori sentitu eta esker onez eta pozez jasotzen dugu.

Edurne Aizpurua: Ohore handiena halako omenaldi bat herrian bertan izatea da.

Nola biziko duzue eguna?

E. A.: Duela urte askotik lagun koadrila handi bat biltzen gara

Mahaspildegi Elkartearen bazkarran. Tartean, Getariako lagun batzuekin.

A. A.: Getariarekin senidetuak gaude. Haiek Txakolinaren Eguna gonbidatzen gaituzte eta guk Sagardo Eguna.

36 edizio bete ditu Sagardo Egunak. Nola ikusten duzue?

A. A.: Herriko ekintza potentena da. Egun handia da Usurbil eta usurbildarrentzat. Jende asko etorri ohi da. Hemen industrialdea kotxez gainezka jartzen zaigu. Urteren batean, ustekabeen gure garajetik autobusak atera ezinik ere geratu izan dira.

E. A.: Kanpoko jendeak gainera, gure enpresa Usurbilgo herriarekin eta sagardoarekin lotzen du. Usurbil esaten duzunean

kanpokoaren artean, Usurbil sagardoaren herri gisa errekonozitzen dute.

A. A.: Gu ere irudi hori bezeroen artean helarazten saiatzen gara.

Amaitu berri den txotx denboraldian, sagardotegietarako joateko ohitura eraldatzen ari omen da. Zuek nabari al duzue?

A. A.: Gustura egiten dugun lana da. Lehen jendea multzo handietan etortzen zen, euskaltegiak, auzolagun elkarteak, kultur elkarteak... Orain koadrilak txikiagoak dira. Jende masa kanpoko da, hemengoak oso talde txikiak. Gaur egun, gauze joan ordez sagardotegietarako egun pasa gehiago egiten da orain.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

ETXETRESNEN KONPONKETAK
azkar, prezio onean MARKA GUZTIAK
20 URTEKO ESPERIENTZIA
645417665
XABIER
Usurbil

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
RPS: 28/17
20170
USURBIL

“Ondo konpondu gara. Enpresa bat da hau, baina filosofia zeharo landatarra da”

NOAUA! 50 urte bete ditu zuen lantegiak. Urtemuga gozoa izaten ari al da?

E. A.: Oso gozoa. Urtemugako ospakizunak lantzen hasten zarenean, zurekiko zer nolako jarrera izango duen zalantzak izaten dira. Baina ezuste handia izan dugu, jende asko etorri da, lagun eta bezero asko. Horrek asko asebeste gaitu.

A. A.: Urtarrilean autobus berriak bezeroei barrutik ezagutzeko aurkezteko ospatu genuen ekitaldia oso polita izan zen. Otsailan lan taldeak ospatu genuen. Urtean zehar ekintza desberdinak egiteko asmoa dugu.

Behin eta berriz azpimarratu duzue, urtemuga bezeroei eskaini nahi diozuela.

E. A.: Gure motorrik garrantzitsuen bezeroak dira.

A. A.: Urtero lan aukera desberdin asko sortzen zaizkigu eta horiek asko zaindu behar ditugu. Eskaintzen dugun zerbitzua, dedikazio handiz eginiko lan oso aberasgarria da.

Askorentzat zaila izan ohi da lana eta familia bateragarri egitea. Zuek lantokian uztartzen dituzue biak.

E. A.: Erraza da bateragarri egitea, egun osoa hemen igarotzen dugu familia artean. Lehen ere hala izaten zen gurasoekin. Hemen bizi eta lan egiten genuen.



“Urtero lan aukera desberdin asko sortzen zaizkigu eta horiek asko zaindu behar ditugu. Eskaintzen dugun zerbitzua, dedikazio handiz eginiko lana da”.

EDURNE AIZPURUA

“Filosofia bera eraman dugu bizitza guztian aurrera: elkar lagundu, ezetzaren aurretik baiezkoa ahoan...”

A. A.: Lana eta familia ondo uztartzen saiatu gara, heziketa kontua izan baita. Hezi gintuzten eran, oso erraza izan zaigu ulertzea zer den garrantzitsua eta zer ez. Ondo konpondu gara. Enpresa bat da hau, baina filosofia zeharo landatarra da.

E. A.: “Asteasuko Unibertsitateko” filosofia eraman dugu bizitza guztian aurrera: elkar lagun-

du, ezetzaren aurretik baiezkoa ahoan...

E. A.: Lana zertaraino den lana eta lana bukatutakoan bizitza gozatzeko aukera izatea elkarren ondoan. Gure gurasoek hori erakutsi ziguten.

Duela 50 urteko apustuak me-rezi izan zuen?

A. A.: Sekula ez da jakiten, baina asmatu genuen, bertan bizi eta lan eginda. Usurbila etorri ginenean, Usurbilgo hazkundera industrialde honekin hasi zen, lehen eraikinak izan ziren, eta horretaz oso harro gaude.

E. A.: Zortea izan genuen garai hartan, Donostiatik hain gertu,

garajea egin eta erosteko hain toki ederra izateagatik.

Zenbat kilometro egin ote dituzue 50 urteotan munduan barrena?

A. A.: Lehen gehiago ibiltzen ginen munduan barrena, orain gertuago.

Ibilgailu partikularren erabilerearen areagotzeak nola eragin du zuen jardunean?

A. A.: Lehen trenez nahiz autobusez, batera ibiltzeko joera handiagoa zegoen. Orain norberak erabaki nahi izaten du noiz eta nola.

E. A.: Aldaketa handia egon da.

“Bezero guztiak onenak balira bezala tratatzen ditugu”

Zeintzuk dira zuen etorkizuneko erronkak?

A. A.: Euskal Herria modan dago. Gure ohiko lanez gain, turismo arloan dugu erronka eta enpresa eta negozioen munduan. Euskal Herriko enpresak ere modan baitaude. Jende asko dator zer eta nola

ekoizten den ezagutzera eta hemengo jende asko mugitzen da kanpora baita.

Sektore barruan, zertan bereizten da zuen lantegia?

A. A.: Autobusetan ez gara agian bereiziko baina bai zerbitzuan eta hori bezeroak atzematen

du. Guretzat bezero denak dira garrantzitsuak. Bezero guztiak onenak balira bezala tratatzen ditugu. 50 urteotan apropos propio zaindu ditugu. Usurbildarrek etxe ondoan, garraio enpresa sendoa, onena dute.

Familiako hirugarren belaun-

dia lanean da jada. Etorkizunik badu beraz lantegiak?

A. A.: Dedikazioa eskatuko dien lan gehigarriak izango dituztela jakinik, bi neskarengan erreleboa aurkitzea txalogarria da. Ausartak eta oso onak dira. Gustura ari dira eta ia errelebo hori ahalbidetzen dugun.

Klik! batean

Maiatzeko ikuskizuna

Sagastiak loretan direnez, petalo zuriek edertzen dituzte gure bazterrak. Aspaldian, bailara guzti-guztiak sagastiak ziren. Orain ikusgarria bada, nolakoa izango zen garai bateko loraldia...

Argazkia: Ion Markel





Eraikitze lanak abiatu dituzte

Zubieta gainak, errausketaren “zero” gunea izateari utzi dio. Lehendik zegoen zulo erraldoian lurra mugitzeko lanak hasi dituzte. Hasi dira beraz, erraustegia eraikitze lanak, maiatzaren 10ean Gipuzkoako Foru Aldundiak ingurune hartan deitu zuen ekitaldian ikusi ahal izan genuenez.

“Atzera kontua hasi da”

Maiatzaren 10ean bisitan izan ziren Aldundiko ordezkariak erraustegia eraikitzen hasi diren gunean bertan. Gipuzkoarrei emandako hitza betetze bidean direla ikusita, pozik agertu ziren ekitaldira bertaratu zen hedabide mordoaren aurrean. “Heldu da eguna. Hemendik aurrera, atzera kontaketa hasi da”, iragarri zuen ingurumen diputatu Jose Ignacio Asensiok.

Hondakinen kudeaketarekin dugun arazo larriari buruz zioenez, “gaurtik aurrera konponbidearen irtenbidea



Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak Zubietan izan ziren maiatzaren 10ean.

LANAK, MARTXAN

“Heldu da eguna. Hemendik aurrera, atzera kontaketa hasi da”, iragarri zuen ingurumen diputatu Jose Ignacio Asensiok

ikusten hasi gara”. Legealdi hau hasi zutenetik, aurreko legegintzalditik jasotako egoera ekonomikoari, azpiegitura

ezari eta irtenbide faltari aurre egin beharrean aurkitu direla nabarmendu zuen Asensiok. “Gaur egoera erabat bideratu dugu, eta bi urte barru, Gipuzkoak behar dituen azpiegiturak abian izango ditu”, iragarri zuen Asensiok.

Markel Olano: “Herriari eman genion hitza bete egingo dugu”

Egun garrantzitsua eta polita izan zen maiatzaren 10ekoa

Ahaldun Nagusi Markel Olanorentzat. “Gaurkoan gure lurraldeak pauso garrantzitsua ematen du”, nabarmendu zuen. Bere esanetan “izugarritzko kaltea” eragin duten eztabaida amaigabeak atzean utzi eta “aurrera egiteko gauza garena” erakusten du Aldundiak.

Gipuzkoarrek eskatutako bi konpromiso beteko dituztela zioen. “Batetik arazoa konpontzea eta bigarrenik, ingurumen ikuspegitik ahalik eta baldintza hoberekin egitea, eta hala egingo dugu”, iragarri zuen.

2019ko udaberrirako, erraustegia eraikia

Legealdi hau amaitzerako, hau da, 2019ko udaberrirako erraustegia eraikia eta froga moduan lanean egongo dela aurreikusten dute. Eraikitze lanez arduratuko den enpresa taldeko ordezkari Carlos Abiliok ere parte hartu zuen ekitaldian. Erraustegiko lanen alderdi teknikoaz jardun zen.

Maiatzaren 27an, Errausketaren Aurkako Eguna Zubietan

Prentsaurreko garrantzitsua deitua zuen Errausketaren Aurkako Mugimenduak asteazken honetarako, maiatzak 17, Donostiako Udalean. Datorren astekarian emango dizkizuegu agerraldi honen inguruko xehetasunak. Aurreratu dezakegun da, maiatzaren 27rako Zubietan deitu duten Errausketaren Aurkako Eguneko egitaraua. Adi, iragarri dituzten hitzorduen artean herri bazkari bat antolatu dute, eta txartelak salgai jarri dituzte jada.

Maiatzak 19, ostirala

■ 19:00 Elkarretaratze zaratsua Mikel Laboa plazan. “Ekarri zarata sortuko duten gailuak; danborrak, txistuak,



Maiatzaren 10ean, Errausketaren Aurkako Mugimenduak deitua, jendea batu zen Bugatin.

kazolak...”.

Maiatzak 25, osteguna

■ 18:00 Auto karabana Decathloneko aparkalekutik abiatuta.

Maiatzak 27, larunbata

Egun osoz, Erraustegiren Aurkako Eguna Zubietan. Goizean zehar Errausketaren Aurkako

Mugimenduak deitutako ekitaldiak. Arratsalde, Gipuzkoa Zutik mugimenduak antolatutako ekimenak. Egitaraua:

- 11:00 Ongi etorria.
- Goizean zehar Hitzaldiak Kaxkapeko aretoetan:
- 11:30 “Nafarroan errausketarik gabeko Hondakin Plana” Martin Zelaia (Sustrai Erakuntza).

■ 11:30 “Errausketa eta Nekazaritza” Baserria XXI.

■ 12:30 Alianza Incineradora de Valdemingomez NO Javier Navascues.

■ 11:30-13:30 Haurrentzako tailerrak.

■ 13:30 Adierazpenaren irakurketa.

■ 14:00 Herri bazkaria:

-Menua: paella, postrea eta edariak. Prezioa: 5 euro haurrek, 10 euro helduek.

-Txartelen salmenta: Usurbil (Aitzaga, Bordatxo), Zubieta (Alamandegi), Oharra: Zubietan ez dago autoak aparkatzeko leku askorik, beraz, ahal dela oinez bertaratzeko gomen datzen da.

■ Antolatzailea: Errausketaren Aurkako Mugimendua.

GuraSOS: Erraustegia geratzeko lau lan ildo

Erraustegia eraikitzen hasi diren honetan, ezer ez dela amaitu dio, fase berri batean sartzea goazela, maiatzaren 7an urtebeteko ibilbidea osatu zuen GuraSOS-ek, aurreko astean, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean egin zuen agerraldian. Argi utzi zuten, eraikitze lanak hasi arren, “ez goaz etxera. Lanean segiko dugu”. Etapa berri honetarako, erraustegia geratu eta hondakinen kudeaketarekin dugun arazoari irtenbide adostu bat emateko lau lan ildo aurkeztu zituzten:

1- Defentsa juridikoa

GuraSOSek iaiztik hainbat ekimen juridiko martxan jartzen joan da. Egun, 4 prozedura dituzte zabalik. Defentsa judiziala amaieraraino eraman nahi dute, “beharrezkoa balitz Europaraino”. Egunotan gai honi loturiko albisterik egon liteke. Iragarri zutenez, “datozen egunotan EAEko Auzitegi Nagusiko lehenengo aretoak PIGRUG 2002-2016aren gaineko suspentsio eskaeraren ebazpena ebatziko du”.

2- Erraustegiaren finantziarioa kolokan jartzea

Erraustegia finantzatzeko dutenen artean dago Meridiam izeneko taldea. Talde honetan dirua inbertitua dute hainbat familia eskandinaviarrek. Haiekin, “komunikazio bide bat zabalduko dugu” iragarri du GuraSOSek. Meridiam taldeak, “UTE-aren bazkideztaren gehiengoa du, %50a”. Parisen (Frantzia) egoitzan duen finantza talde honekin hartuemanetan da jada guraso taldea. “Bere elkarrearen gutun etikoa ezagutzen dugu, baita inbertsio arduratsuen printzipioen gaineko konpromisoa. Horrela, geure inizatiba sozial zein juridikoen gaineko informazioa helarazi diegu, eta,



Maiatzaren 7an urtebeteko ibilbidea osatu zuen GuraSOS taldeak. Eraikitze lanak hasi arren, argi utzi nahi dute: “ez goaz etxera. Lanean segiko dugu”.

GURASOS

Egun, lau prozedura judizial dituzte zabalik. Defentsa judiziala amaieraraino eraman nahi dute, “beharrezkoa balitz Europaraino”

horrekin batera, geure kezka ingurunearekin zein eskubide zibilekin lotutako gaiekiko, horiek ez direla bermatu uler-tzen dugulako. Horrekin batera, Urbaserren etorkizunaren inguruko ziurgabetasuna (Madrilen ustelkeriaren aurka eginitako azken polizia operazioan miatu zuten enpresa hau), eta beren jardueraren gaineko susmoak. Hori guztia beraiek erabaki dezaten ea enpresa horrek betetzen dituen ala ez, gutun etikoan jasotzen dituen printzipioak. Printzipio horiek ustelkeriarekin lotuta egon daitezkeen transakzioak eta gizar-tearen oinarritzko eskubideak ez errespetatzea baztertzen dituzte. Printzipioek, ordea, ingurumenarekiko proiektuak eta gertuko ekonomiaren garapena bultzatzen dute”, ohartarazi du GuraSOSek.

3- Hitza Hartu prozesua

lazio ekainean iragarri arren,

gerora Gipuzkoako Foru Aldundiak egin nahi izan ez duen herrialde mailako parte hartze prozesua abiatuko du GuraSOSek, adituen laguntzaz. Hiru ardatz nagusien bueltan: “Kohesio sozial handiena lortzea, osasunaren babes handiena lortzea eta gaia Europako araudiari egokitzea”. Euskal Herriko Unibertsitatearen “Parte Hartuz” ikerketa taldeak diseinatuko du prozesua. Horren “emaitza izango da 2017-2030 Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketa Planaren proposamena”.

4- Gipuzkoa + Technology

Ikuspegi ekonomiko eta prag-

matikoagoa duen inizatiba ekintzaile bat ere abiatuko du GuraSOSek, “Gipuzkoako hondakinen kudeaketaren gain erreferentzia teknologiko eta soziala bilakatzeko asmoarekin”; “Gipuzkoa + Technology” izeneko. Prebentzioan, berrerabilpenean eta birziklapenean inbertsioa eta ikerketa sustatzea proposatzen du GuraSOSek. “Hondakinen kudeaketa eta parte hartzearen inguruan eredu eta praktika onak esportatzea proposatzen dugu. Industria oso bat (aberastasuna, lanpostuak...) sortzea hondakinen kudeaketaren gaiarekin, alegia. Azken batean, Gipuzkoak duen eta azken urteotan sortu dugun energia politikoa, instituzionala, teknologia, eta batez ere, sozialaz baliatzea eta norabide egokian jartzea, errentagarritasun soziala eta ekonomikoa lortze aldera. Inizatiba horien inpaktu ekonomikoa oso altua izan daiteke, are gehiago kohesio soziala lortze aldera izan dezakeen eragina, baita ekonomiaren gaineko ondorio positiboak ere”. Azken bi ekimenek gizarte, ekonomia, unibertsitate eta eragile politikoekin partekatzea doa GuraSOS.

Ostiralean elkarretaratzea, Errausketaren Aurkako Mugimenduak deituta



Azken asteotan, Errausketaren Aurkako Usubilgo Taldeak elkarretaratzeak antolatu ditu Mikel Laboa plazan. Ostiral honetarako, elkarretaratze zaratatsua iragarri dute. 19:00etan hasiko da.

San Ixidro, iruditan



San Ixidro eguna ospatu zen astelehenean. Trikitilariak eta bertsolariak girotu zuten eguna.



Herritzartu elkarte

Zorionak Usurbil! Maiazaren 7ko herri galdeketa urrats handia izan da gure Erabakitze Eskubidearen aldarrikapenean. Beste 51 herrirekin batera Usurbilek ozen eskatu du eskubide hori onartu eta errespetatzea. Hala erakusten dute antolaketa prozesuan zein bozka egunean bertan herritarrek burututako ekintzek, guk, elkarte sustatzaile gisa, nabarmendu nahiko genituzkeenak:


■ Galdeketak berak izan duen parte hartzea: 1.848 usurbildarrek, erroldaren %38,36ak eman zuten bozka. Bozkatzeko borondatea, berriz, handiagoa izan zen; izan ere, 50 herritar bozka ematera gerturatu bai baina eman izan ezinik geratu baitziren. Horiek kontuan hartuta, beraz, bozka borondatea %39'1ekoa izan da.

■ Azken hauteskunde ofizialeko datuak oinarri, erabakitzeko eskubidearen aldeko esparru ideologikoa izango litzatekeena aintzat hartzen badugu, esan dezakegu esparru horretako %75ak bozkatu zuela galdeketa. Alegia, hamar lagunetik zazpi parte hartu zuten, eta, gure ustez, azpimarratzeko moduko datua da.

■ Bozka eman zuen gehien-goak (%93'56ak) baiezko botoa eman zion Euskal Herria estatu independente izateari. Halaber, oso positibotzat hartzen ditugu ezezko botoen datuak (%2'87a) eta, baita ere, boto zuriak jasotakoak (%3'30a). Guztira, botoen %6'17, aipatutako determinazio demokratikoaren isla garbia.

■ Bozka emalearen ezaugarrien inguruan (ikus irudiak), bi datu aipatu nahi genituzke: batetik, botoa emateko garaian gizon eta emakumeen

Hamarretik zazpi eman dute botoa



1.848 usurbildarrek, erroldaren %38,36ak eman zuten bozka. "Bozkatzeko borondatea, berriz, handiagoa izan zen; izan ere, 50 herritar bozka ematera gerturatu bai baina eman izan ezinik geratu baitziren. Horiek kontuan hartuta, beraz, bozka borondatea %39'1ekoa izan da".

HERRITZARTU

"Azken hauteskunde emaitzak oinarri, erabakitzeko eskubidearen aldeko hamar usurbildarretik zazpi parte hartu du galdeketa. Gazteen parte hartzea nabarmentzeko izan da: 16 eta 18 urte bitarteko usurbildarren %46ak parte hartu du galdeketa"

presentzia parekidea eta bestetik, gazteek, eta bereziki lehenengo bozka emateko aukera izan zuten gazteek, izan zuten presentzia (erroldaren %46koa).

Errebindikazio demokratiko honen oinarri nagusia herritarren arteko elkarlana izan da. Asko izan dira jarduera desberdinetan parte hartuz (argazkiak, otorduak, mosaikoa, musika, hitzaldiak, galdera, publizitatea etab.) proiektua babestu eta bideratu duten he-

rritarrek. Aipamen berezia egin nahi diogu bozka eguna bera gauzatu zedin lan egin duen lantaldeari: Berme Batzordea, Jarraipen Batzordea, hautesgune bakoitzeko mahaikideak eta laguntzaileak, begiraleak, segurtasun batzordea, talde sustatzailea... 90 pertsona inguru, guztira. Guzti-guztiei gure zorionik eta eskerrik beroenak!!!

Hurrengo hitzordua: ekainaren 10ean Bilbon

Gaur arte egin diren 142 herri galdeketak kontuan hartuta, 146.500 pertsona izan dira parte hartu dutenak. Olatuz olatu, herriz herri, milaka borondate pilatu ditu Gure Esku Dagok erabakitze eskubide gaizatzearen alde, erabakitzeko prest gaudela argi utziz. Hain zuzen ere, hori da ekainaren 10ean Bilbon irudikatu nahi duguna.

Erabakitze eskubidearen aldeko indar guztiak batuta, Euskadi plazatik Eliptika plazaraino galdera ikur erraldoia

osatu nahi dugu. Eta herritarrez ez ezik edukiz ere beteko ditu GEDk kaleak. Hilabeteotan landutako Herriarri Ituna aurkeztuko du mobilizazioaren amaiera ekitaldian; Itun demokratiko horrek jasoko ditu Euskal Herrian erabakitze eskubidearen inguruan gaur arte lortutako adostasunak eta oinarriak. Gizarte osoarentzako tresna ireki bat izateko jaio da, baita pauso berri eta sendo bat emateko ere, erabakiaren bidean. Ekainaren 10ekoa, beraz, ez da hutsetik jaiotako ekimena; orain arte egindako lana oinarri, aurrera egiteko abiapuntua izango da.

Hurrengo egunetan herrian jarriko dugun mahaian eskuratu ahal izango duzue ekimen honen inguruko informazioa. Ekimenean parte hartzeko 'konpromiso txartelak' egongo dira, 2 euroren truke eta txartel horiekin batera banatuko ditugu galdera ikur erraldoia osatzeko erabiliko ditugun puxikak. Animate, eta parte hartu.

Usurbil K.E.-ren kadete mutilak, Espainiako Txapelketaren atarian

Euskadiko txapeldunorde eta Espainiako Sektorea jokatzeko sailkatuak. Hitz gutxitan, denboraldi bikaina egin du Usurbil K.E.-ko kadete mutilen taldeak. Asteburu honetan Elxera doaz aipatu sektorea jokatzera. Bezperatan taldearekin bildu da NOAUA!

NOAUA! Euskadiko txapeldunorde, Espainiako sektorea jokatzeko sailkatuak. Denboraldiko balantzea ezinhoea da ezta?

Jon Aizpurua Canseco: Bikaina, ezinhoea. Lau urte daramatzat taldea entrenatzen. Denboraldia neurketak seitik sei irabaziz hasi genuen. Bidasoa edota Zarautzekin, talde onekin lehiatzen eta irabazten. Bukarera iritsi eta hemen segitzen dugu.

Honaino heltzea aurreikusten zenuten?

Bagenekien talde on bat genuela, iazko denboraldian lehenengo urteko denboraldia zen, eta nahiko ondo ibili ginen. Aurten behar zuen eta oso pozik gaude.

Ze indargune ditu taldeak?

Jada lau urte daramatzagu elkarrekin, konfiantza handia dugu. Entrenamendu saioetan izugarri saiatzen dira. Gure arrakastaren gakoak, entrenamendu saioetan gogotsu aritzen direla da eta entrenatuz egin gara onak.

Seniorren bideari jarraiki, talde gazteak ere Espainiako Txapelketarako sailkatzen ari zarete.

Belaunaldi hau indarrez dator Usurbilen. 17 jokalaririk ditugu. Eta hori Usurbilen ez dakit inoiz gertatu den. Hala bada, oso gutxitan gertatu da kadete mailan 17 jokalaririk izatea. Iaz



Asteburu honetan Elxera doaz. BM Ciudad de Algeciras (Andaluzia), BM La Roca (Katalunia) eta C.B. Elche izango dira aurkariak.

JON AIZPURUA

“Entrenamendu saioetan gogotsu aritzen dira. Hori da gure arrakastaren gakoak. Eta entrenatuz egin gara onak”

ia sailkatzeak izan ginen. Bigarren fasean lehiatik kanpo geratu ginen. Oraingoan muturra barruraino sartu dugu. Elxekoa sari bat da guretzat. Talde onekin lehiatzera goaz. Ez dakit irabaziko ote dugun, baina hara joate hutsa sari moduan hartzen dugu.

Goiko postuetan egoteko aukerarik izango duzue?

Asteburuko sektorea lehen postuan amaitzen badugu, Espainiako zortzi talde onenen artean sailkatuko ginateke. Hori Usurbilentzat ikaragarria litzateke. Baina oso zaila izango da. Gainerakoan pena, Sagardo Eguna galduko dugulako, baina gogotsu goaz, gozatzera. Horrelako sektore bat ez da beti bizitzen, oso gutxitan. Ez dakit errepikatuko ote den.

Hitzordu hau kenduta, neurketa gutxi batzuk geratuko zaizkizue denboraldia amaitzeko?

Orain Koparekin ari gara, baina ez da taldeko lehentasuna edo helburu nagusia. Entrenamendu saio askorik ere ez dugu. Ahal duguna egin eta egingakoarekin oso gustura egongo gara. Denboraldi oso ona egin dugu, ni jada oso harro nago taldeaz.

Taldeak segida izango du hurrengo denboraldian?

Bai. Hurrengo denboraldiko erronka nahiko handia da. 3 pertsona etorriko lirateke gure taldera, bigarren urtekoak eta beste 10-11 lehen urtekoak. Talde gaztea izango dugu berriz. Gogoak jarriko dugu eta ahal dena egin. Onena da, taldean ez dugula inolako arazorik, oso giro ona dugu.

Horrek lagunduko zuen honaino heltzen.

Sari onena hori da, giro ona izatea. Lau urte dira eta denok ezagutzen gara oso ondo.

Jokalaririk gisa aritu ostean, entrenatzaile orain. Nola ikusten

da eskubaloia prestatzailearen ikuspuntutik?

Usurbilen eskubaloia maila izugarri igo da. Gazteak indarrezkoak datoz. Jokalari izan naiz eta gure garaian, esaterako Zarautzen azpitik gertatzen ginen. Orain Zarautzen aurretik gara, Euskadi mailan bigarren, postu onenetan. Sari handia da. Beste hainbatek bi talde edo jokalaririk askoz gehiago dituzte. Gu hemen talde bakarra gara; Ander Orena, ni eta koadrila berekoak diren jokalaririk.

Azken hitzak taldearentzat.

Meritu oso handia dutela. Berea irabazteko gogo horrekin lortu dugu nahi genuena. Elxera gozatzera, ondo pasatzera goaz. Sagardorik izango ez dugunez, paella eder bat jango dugu.

Espainiako Sektorea

■ Epea: maiatzak 19-21.

■ Non: Elx.

■ Jokatuiko duten sektorea: F.

■ Aurkariak: C.B. Elche (Valentzia), BM Ciudad de Algeciras (Andaluzia) eta BM La Roca (Katalunia).

Irailean, Benasqueko bailarara

Iaz bezala, irailaren 9 eta 10eko astebururako antolatuta du Andatza M.K.T.-k, urtero egin ohi duen Pirinioetako asteburupasa. “Benasqueko bailarara joango gara, Posets (3375 m) egiteko asmoz. Angel Orus aterpean ostatua hartuko dugu”, berri eman dute antolatzaileek. Izen ematea zabaldu dute jada. Hemen xehetasunak:

■ Egunak: irailak 9, 10.

■ Ibilbidea:

Irailak 9: “6:00etan Usurbildik abiatuko gara autobusez. Bidean geldialditxo egin ondoren, Benasqueko bailarako Eriste herrira iritsiko gara, Angel Orus aterpera abiatzeko”.

Irailak 10: “Angel Orus Aterpetik Posets-eko gailurra egiteko asmoz abiatuko gara. Ondoren Eristera jaitsiko gara autobusa hartzeko eta ilunabarrean Usurbilera iristeko”.

■ Izen ematea: uztailaren 12ra arte.



Argazkiko lagunek Zigatik Erratzurainoko ibilbidea osatu zuten maiatzaren 7an.

■ Prezioak:

- Andatzako bazkideek: 36 euro FEDME gehigarria dutenak; 45 euro ez dutenak.

- Andatzako bazkide ez direnek: 61 euro FEDME gehigarria dutenak; 70 euro ez dutenak. Ordainketak, kontu zenbakiotako batean:

Rural Kutxa: 3008 0259 1630 0543 0321

Kutxabank: 2095 5069 0710 6848 9805

■ Oharrak:

-Plaza mugatuak. Izen emateko zerrenda errespetatuko da,

plazak bete arte. Lehenasuna Andatzako kideek izango dute. -Andatza M.K.K.-ren irteeretan parte hartzeko ezinbestekoa da mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean izatea. “Federatu gabe dagoenari tramitea egingo diogu, hala nahi badu. Komenigarria da izapidetza ahalik eta azkarren egitea”. Informazio gehiago eta hartuemanetarako:

andatza.com

andatza@hotmail.com

■ Antolatzailea: Andatza M.K.T.

Usurbil F.T.-ko infantil neskek, Kopako finalerdian



2-1 galdu zuten baina Usurbil F.T.-tik aditzera eman dutenez, “partida eder bat jolastu ondoren”.

Infantil neskek Kopako finalerdia jokatu zuten asteburuan Urolaren aurka. Finalerako sailkatzeaz izan ziren, baina

azken momentuan galdu zuten neurketa, 2-1. Usurbil F.T.-tik aditzera eman dutenez, “partida eder bat jolastu ondoren”.

Maiatzaren 27an, guraso bilerak

Usurbil KE-k deituta

Usurbil K.E.-k jokalariei gurasoekin bildu nahi du maiatzaren 27an, hainbat gai jorratzeko: kirol arloa, antolakuntza arloa eta galdera-eskaera. “Bilera hau oso garrantzitsua da eta zuen asistentzia beharrezkoa da”.

Alebin-infantil mailakoak

■ 10:00 Alebin eta infantil mailako neska-mutilen gurasoekin, Artzabalen.

Kadete-jubenil mailakoak

■ 11:00 Kadete eta juvenil mailako neska-mutilen gurasoekin, Artzabalen.

Argibide gehiagorako:

usurbilke@gmail.com



Hobekuntzak kirol instalakuntzetan

Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez, “Usurbilgo kirol instalazioetan mantenu obrak egin eta hainbat hobekuntza ezarri dituzte Udaleko Kirol sailak eta Zerbitzuak eta Mantenua sailek elkarlanean. Lan horien ondorioz, Harane futbol zelaia ixten duten sareak guztiz ordezkatu dira, iaz porteria baten atzeko sarea aldatu baitzen eta aurten beste atzealdeko eta alboko sareak aldatu dira. Horrez gain, Txokoaldeko frontoian margoketa lanak egin dira”. Irudia: Usurbilgo Udala.

Futbol partidak

Maiatzak 20 larunbata

■ 11:00 Infantil mutilak:

Usurbil F.T.-Koskas K.E. “A”

■ 17:50 Erregional mutilak:

Usurbil F.T.-Oiarzun K.E.

Maiatzak 21 igandea

■ 11:00 Nesken futbol topaketa.

Eskubaloit partidak

Maiatzak 20 larunbata

■ 09:30 Alebin mutilak, lagun artekoa: Udarregi 5A-Udarregi 5B

■ 09:30 Alebin mutilak, lagun artekoa: Udarregi 6A-Udarregi 6B

■ 10:30 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B-Pulpo

■ 11:45 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi A-Ereintza

Maiatzak 21 igandea

Ordua zehazteke:

■ Alebin mutilen Gipuzkoako Errendimenduko Txapelketa, prestakuntza saioa.

■ Alebin nesken Gipuzkoako Errendimenduko Txapelketa, prestakuntza saioa.

Gizonezkoen paleta goma txapelketa

18 urtetik gorako usurbildarrei zuzendua. 626 110 923 telefono zenbakira deitu edo email helbide honetara idatzi: huizip@gmail.com

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trasteleku. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 2.000 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trasteleku. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berriua. 395.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta trasteleku. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperboru 8an. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 25 m² trasteleku. 626 347 914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berriua, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

BOE-ko 79m² etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukaldea... Dena kanpoaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trasteleku. 629631838

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Pisua salgai Urdaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m². Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekileku,

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

egongela, 2 logela eta komuna. 90.000 euro. 646344847

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean. Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Alokairuan

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Pisu bat Santuenean. 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta sukaldea. Animaliak ez dira onartzen. 667 680 236.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariek eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

MOTORRA

Salmenta,

garaiek

120 metro² lokal bat salgai. Alperboru 3an. 699 306 158

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiaurrena 10ean. 620024663

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje itxi bat alokatzen da Kale

Nagusian, Usurbilgo sarreran. 657795378

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxe karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsua. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Erreka-txiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Zerbitzari bat behar da kafetegi batean lan egiteko. Asteazkenean zehar egun bat eta asteburutan. Bidali kurrikulum-a posta kutxa 16 zenbakira 20170.

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera

altuak.jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Euskal filologa naiz, eta euskarazko klaseak ematen ditut maila guztientzat. Mondragon Unibertsitateko masterra dut irakas-kuntzan. Tel. 638 917 714

Lan bila nabil. Orduka, gauean... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehentik ostirale- ra. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauean... edoizen modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketan lan egiteko. Interna moduan, orduka edo gauez. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketan, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro². 699 306 158

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketa egiteko orduka edo goizetan. 629 110 310

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke orduka: 619 355 819

Geriatria laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldearen ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etx-



Zorionak Intza, Zorionak Lide!
Maiatzaren 18an 6 urte betetzen dituzuelako muxu handi handi bana familiaren partez.



Zorionak Peru!
6 urte!
Muxu handi bat Eire, Aitaxo eta Amatxo.



Zorionak Jon!
San Ixido egunean zazpi urte bete zenuen! Muxu handi bat!



Zorionak Printzesa!
Maiatzaren 18an 6 urte beteko dituzu. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez!



Zorionak Mikel!
Maiatzaren 18an 9 urte beteko dituzue mutilak! Muxu handi-handi bat familia guztiaren partez.

OHARRA: 2017ko maiatzaren 26an aterako dugu datorren astekarria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: maiatzaren 22an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

tan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenaretzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketara lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketara, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketara lanetan. Berehalanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel. 632 587 450.

Etxeko lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gaztea, geriatrion laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketara lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etxeko lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, ordukatu lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoen zaintza, garbiketara lanak, tabernan arraskan aritzeko... 688 642 835/ 697 887 581.

Etxeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna,

helduak zaintzeko eta etxeko zerbitzurako prest, baita garbiketara lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketara, jabetxe batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Paperak egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko ikasleei klase partikularak emateko eskaintzen da. Ingeniaritza kimikoan graduatua, ingeles maila altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati eta Ane bakarkako partikularak,

arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanketa eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hainbat ikasketak. Deitu edo bidali mezua: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen da, astean bi edo hiru egunetan garbiketara lanak egiteko, goizez edo arratsaldean, irailatik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaian baratzako lanak egiteko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo ospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, inter-

na moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketara lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketara lanetan. Paperekin eta espezialitatekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel.

673 256 566.

Etxe etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material gutziarekin eta txakur ileapaintzaile titularekin. 666 798 804.

BESTELAKOAK

Informatikako klaseak hartuko nituzke. Tel. 691 961 669.

Betaurreko batzuk agertu dira, graduatuak eta funda beltz batean. Atxegaldeko erdiko kalean. Zureak badira, deitu: 943 37 13 48

Artzabal inguruan ume txano grisa galdu dugu; ponpoiduna eta belarriak tapatzekoak dituen. Norbaitek aurkituko balu, eskertuko genuke udaltzaingoa entregatzea.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortadorea salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosi nahi nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikoko egokia) 627355126.

Katuak oparitzen ditugu Donostiatik elkarte. 633 273 747 / 605 730 115

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuek... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenera ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udalzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ihena Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 18 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 19 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 20 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 21 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Astelehena 22 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteartea 23 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteazkena 24 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Maiatzak 18 - maiatzak 28

Osteguna 25 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 26 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 27 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 28 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda maiatza

19 ostirala

- **Elkarretaratze zaratatsua, erraustegiaren aurka** 19:00etan Mikel Laboa plazan.

20 larunbata

- **Sagarrondotik sagardora ikastaroko saioa:** "Garbitasuna kalitatearen lagun". 9:00-13:00 Potxoenean.
- **Antzerkia: "Jainko basatia".** 22:00etan Sutegiko auditorioan.

21 igandea

- **Sagardo Eguna** Ikus zenbaki honekin batera plazaratu dugun gehigarri berezia.
- **Elkarretaratzea** Mikel Laboa plazan. 13:00ean. Deitzailea: Usurbilen Nahi Ditugu elkarte.

Larunbatean Sutegin, "Jainko basatia" antzezlan

Jexux Artzeren omenezko ekitaldi zikloa borobiltzeko, "Jainko basatia" antzezlan antolatu du izen bereko elkarteak. Larunbat honetan, hilak 20, 22:00etan Sutegin. Aitziber Garmendia, Mikel Losada, Andoni Agirregomezkorta eta Tessa Andonegi aktore ezagunak protagonista dituen komedia dramatikorako sarrerak aurrez salgai dituzue Lizardin 8 eurotan, edo egun berean 10 eurotan Sutegin bertan.

"Bi bikote elkartzen dira euren seme-alaben arteko liskarrak konpontzeko asmotan. Giza-legez eta edukazio handiz abiatu den bilerak beste bide bat hartuko du, elkarri kristorenak eta bi esaten has-



Gaueko 22:00etan hasiko da. Sarrera merkeago eskura daiteke aldeztatik Lizardin erositik.

ten direnean, bata eta besteen frustrazio eta miseriak azalduz. Ikuskizunak arrakasta handia eduki zuen bere jaioterrian, Frantzian, eta oso goraiatuak izan dira Londresen, New Yorken edota Hego Amerikan eginiko egokitzapenak".

Igandean, Sagardo Eguna: Frontoian, Dema-plazan eta Askatasuna plazan

- 11:30 Hasiera ekitaldia.
- Goizean zehar, sagardoak eta pintxoak dastatzeko aukera.
- 12:30 Euskal Herriko 1. Egurrezko Sagardoen Txapelketa.
- 18:00-21:00 "Elektro Patxaranga".
- Sagardo Egunaren Lagunak.

Igandean, Sagardo Eguna: Txosnagunea, Mikel Laboa plazan

- Mikel Laboa plazan aurkituko duzue:
- 11:00 Irekiera. Eguerdira arte, talogileak.
- 13:00 Presoen aldeko kalejira eta txotxa.
- 17:00 Rukula. Ondoren, DJa.
- Antolatzailea: Ernai Usurbil.

Datozenak

Clown saioa, ludotekan

"Portaera egokia hondartzan" clown saioa antolatu du Bihurri Ludotekak maiatzaren 26rako, 17:30ean ludotekan bertan. 3-4-5 urteko umeei beren eta gainerako erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko hondartzan izan behar duten portaera zuzena transmititu nahi zaie.

Muxurbilgo ikasturte amaierako emanaldia

Maiatzaren 27an 12:00etan Sutegiko auditorioan. Sarrera doakoa da baina gonbidapena eskuratu beharko da.

Kantu Taldekoak, Gasteizera

Maiatzaren 27an ez da hileroko kantujirarik ospatuko Usurbilen, Kantu Taldekoak Gasteizera baitoaz. "Autobusa alokatu dugu eta egun pasa goazi!", iragarri dute. Euskal Herria Kantuz ekimenean parte hartuko dute.

Danborrada, entseguak

Jaietako danborradako entseguak ekainaren 14an abiatuko dituzte. Asatelehen, asteazken eta ostiraletan izango dira, 20:00-21:00 artean Udaregi Ikastolako frontoian. Danbor jo-leak uztailaren 1ean irtengo dira.

ELORZA

O BRAK ETA
ER REFORMAK S. L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



ANORGA TXIBI S.L.

KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak · beira bikoitza
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45



Saltoki handiak, atzeraldi ekonomikoa, internet...

ez da berdin

babestu zure herrikoa

herriko denda txikietan erosteak... handi egiten zaitu!

eman bizia, bizirik iraungo badu

hurbilag 

Hurbilaga Merkatari eta Enpresen Erakundeak



Urtaldego Taldea



ERAKUNDA, HERRIARRITZA
ERAKUNTZA ETXETARITZA

URDAIRA

Sagardotegia
astelehenak itxita **Aginaga 943 37 26 91**

OTSUA-ENEA
SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, **HERNANI**

LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarriletik maiatzak 7ra
TXOTX GARAIA
Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**
Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**

Iruin Sagardotegia

Etorri eta dastatu sagardo berriak

30 Urte baino gehiago Usurbildarrei sagardo hoberenak eskeintzen.

Iruin. beti zugandik gertu.

943.361.229 Petritza bidea 12, Zubieta

ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.

Oztaran bailara • **URNIETA (Gipuzkoa)** • ☎ **943 55 69 81**

SAIZAR

943 37 39 95

Kalezar 39, **USURBIL** sidreria@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com

SAGARDOTEGIA
aginaga **Hotela ****

URTE OSOAN
ETXEKO SAGARDOA
TXOTXETIKI!

ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA

943 36 67 10

Aginaga, **USURBIL** www.aginagasagardotegia.com

Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!

%100 bertako sagarra

AIALDE BERRI

Tel: 943 365 031

Santuenea